

Enpresa Txikientzako
Praktika Errazak

2

Enpresak Parte Hartzearen Aldeko Arrazoi Guztiak

Praktiketako Programa
Errentagarrien Diseinua



GEHIAGO IRAKURRI NAHI?
www.learntowork.eu

 learn to work



3

SARRERA



4

NOLA LAGUN DEZAKETE
TREBAKUNTZA HAUEK NIRE
ERRENTAGARRITASUNEAN?



5

ARAZOAK ETA
ERAGOZPENAK GAINDITU



6

PRAKTIKETA KO PLANA
ERRENTAGARRI ATERAKO DELA
SEGURTATZEKO ERAK




8

PRAKTIKA ERAGINKORRAK



9

ARRETA
BEHARRIZAN BEREZIEI




Praktiken balio-proposamena erraza da: ikasleei lan-mundurako behar duten esperientzia ematearen truke, enpresek ikasle horien lan-indarra eskuratzen dute diruz lagunduta. Era horretan, praktiketako programa batek zuzenean eragiten du praktiketako ikasleen lanaren errentagarritasuna.

Gainera, praktikek onura gehigarriak eragiten dituzte ETEetan, adibidez, pertsonen enpresan gehiagotan jarraitzea, arloaren barruko irudi hobea eta, azken batean, enpresako akziodunentzako onurak.

Koaderno honek sarrera bat eskaintzen dizu zure enpresak praktikan egiten duzun inbertsioaren truke erretornu edo itzulkin alibait handiena lor dezan, aldi berean segurtatuz ikasle bakoitzak praktika honetatik behar duen esperientzia eskuratuko duela.

NOLA LAGUN DEZAKETE TREBAKUNTZA HAUEK NIRE ERRENTAGARRITASUNEAN?

4



Praktikek ezagutza teknologiko eta zientifiko berriena ematen dute, praktiketako ikasleek beren hezkuntzan eskuratutakoa.

Lan-mundura lehen aldiz sartzen diren ikasleak pentsaera modu berezia dakarte, baita uneko erronkak eta arazoak konpontzeko ikuspegi berriak ere.

Praktikek zure erakundeko hutsuneak bete ditzakete, eta produktibitate eta lehiakortasun handiagoa ekarri.

Praktiketako ikasle bat ekartzea merkatu berrietara hedatzeko edo produktu berriak garatzeko laguntza ematen dizun aukera paregabea da.

Praktiketako ikasleen lan-kostuetarako laguntza finantzario handia jasotzen dute, eta horrek efizienteagoak egiten ditu oro har enplegatzailearentzat.

ARAZOAK ETA ERAGOZPENAK GAINDITU

5



“Praktikek lehiakideentzako langileak trebatzeko bakarrik balio dute”

ETE askok diote praktiketako ikasleak trebatzen inbertitzeak bakarrik balio duela konpainia handiek edo zuzeneko lehiakideek bereganatuko dituzten enpleguak trebatzeko.

Praktikak ulertzeko beste era bat da zure etorkizuneko lan-indarra iragazten, trebatzen eta aukeratzen ari zarela. Adibidez, Erresuma Batuko RISE Sheffield City Region programa funtzionamenduan izan da 5 urtez eta, praktiketako hasierako aldiaren ondoren, enpresa berean geratu dira ikasleen % 78. Horrek erakusten du ETEak gai direla talentua epe luzera atxikitzeko.

Praktiketako ikasleen trebakuntzari uko egiten dioten enplegatzaileak (lehiakideei buruzko eragozpenak jartzen dituztelako) ez dira ohartzen elkarrekin trebatu eta enpresaburu guztien eskueran diren gaitasun handiko enplegatuen ekosistema bat sortzeko onurak dakartzala.


Gainera, instrumentu erraz batzuek, adibidez, lehiakideen inhibizio- eta konfidentzialtasun-akordioek, bermatu egiten dute isilpeko informazioa ez dela partekatuko praktikak amaitu ondoren.

“Praktiketako ikasleak ezin hobek dira aldi baterako behe-kualifikazioko lanean aritzeko”

Sarritan, enpresek behe-kualifikazioko aldi baterako zereginetan baliatzen dituzte praktiketako ikasleak, lanaldi osoko pertsonen zeregin horiek ez egin nahiago izaten dutenean. Ikuspegi horrek praktiketako ikasle bat trebatzeko behar den ahalegina gutxitu dezakeen arren, praktiken beste onura batzuk alferrik galtzen ditu, batez ere kontratazioa hobetzea, ezagutzaren transferentzia eta praktiketako ikasleek enpresarentzat sortutako balio potentziala.

PRAKTIKETAKO PLANA ERRENTAGARRI ATERAKO DELA SEGURTATZEKO ERAK

6



Diseinatu praktiketako programa bat zure enpresaren etorkizuneko gaitasun-beharrizanei zehazki aurre egiteko.

Identifikatu zure enpresako zein arlok izango dute segur aski gaitasun-urritasuna hazkundeagatik edo arlo berrietan sartzen ari zarelako; hor bereziki inplika itzazu praktiketako ikasleak, ikasketak bukatutakoan zure enpresarekin bat egiteko aukera handienak izateko.



Ikertu ikasleak ikasgelan berriki zer ikasi duen, zure enpresaren alde hori nola baliatu ikusteko.

Goi-kalitateko praktikek bat egiten dute ikastetxeetan emandako gaien edukiarekin eta, beraz, praktiketaren esleitzen diren zereginak horien gainean eraiki beharko liriteke. Zurekin kide du den ikastetxeak pozarren helaraziko dizu bere curriculum eta edukia, eta iradoki ere egingo dizu zure praktiketako programan hura nola sartu.

PRAKTIKETAKO PLANA ERRENTAGARRI ATERAKO DELA SEGURTATZEKO ERAK

7



Garatu praktiketarako enpresa-plan bat.

Praktikak errentagarriak izan beharko liriteke inplikaturako alde guztientzat. Horretarako, oso lagungarria da plan finantzario orokor bat lantzea praktika-aldi bakoitzerako eta praktiketako planaren osotasunerako. Kontuan hartu tutoreei esleitutako denbora, praktiketako ikasleari pagatutako soldatak, aseguruak edo beste ordain batzuk, lan-baliabideen kostuak, baita sor daitezkeen beste kostu batzuk ere. Soldata tartean, kalkulatu beren kontratazio-aldian praktiketako ikasleek gauzatutako zerbitzu edo produktuek unean edo etorkizunean sortu beharko luketen balio estimatua. Gainera, gogoan izan zeharkako irabazi gehigarriak, adibidez, kontratazioan aurreztutako kostuak eta zure markari edo ospeari ekarritako onurak.



Diseinatu gaitasun horiek erabiltzeko izan duen emaitza ekonomikoa kontuan hartzen duen ebaluazio-sistema bat.

Ebaluazio-sistema eraginkor batek ez du ontzat ematen praktiketara joateak bakarrik gaitasunak sortzen dituela. Aldiz, ebaluazio eraginkor batek praktiketako ikasleek gauzatutako zerbitzu eta produktuen kalitatea kontrolatu behar du, baita horiek sortzeko erabilitako baliabideak ere (bereziki denbora). Era horretan, enpresak baloratu egin dezake praktiketako ikasleak enplegatu errentagarria nola izan ikasi duen edo ez.





Erabili praktiketako ikasleak merkatuko aldaketa asaldagarrietara egokitzeko.

Adibidez, ibilgailuen pieza-hornikuntzaren industrian, fabrikatzaile ugari ingeniari-tza mekanikoko teknikarien oso mende daude. Kontuan hartzen badugu egungo automobil-fabrikazioko % 30ean ingeniari-tza elektrikoa behar dela eta proportzio hori gero eta lasterrago igotzen ari dela, ingeniari-tza elektrikoko eta softwareko ikasleak hartuz, lan-indarrean ez dagoen ezagutza berria eskura dezakezu eta, gainera, ETEaren etorkizuna sendotzen laguntzen duzu, ezkutuan diren aspektuei aukera berriak irekiz.

Inplikatu eta konfiantza jarri praktiketako ikasleetan uean konpontzeke dagoen arazo bat hari esleituz.

Zure enpresan konpontzeke dauden arazoak esleitzearen bidez praktiketako ikasleak inplikatuz eta haiengan konfiantza jarritz, piztu egiten dituzu haien jakin-mina eta lehiarako zein berrikuntzarako sena; aldi berean, gainera, taldeko kide izatearen sentimendua hauspotzen duzu. Era horretan, begirada freskoa eta aurreiritzirik gabek eman dezakete uneko arazoez eta, aldi berean, metodologia eta gaitasun tekniko berrienei buruzko beren ezagutza akademikoa transferitzen dute, aplikatzeko irrikatan dira eta.



Zure enpresak onar ditzakeen beharrizan bereziak erabaki badituzu (ikus aurreko kapituluan), orain horiek antolatzeke behar dituzun neurriak aplikatzeko era ere erabaki behar duzu. Neurri horietan, prestaketa hauek sartzen dira:

Zure instalazioak

Instalazio eta altzari batzuk edo ekipamendua egokitu edo hornitu, sartzea eta mugitu ahal izatea, lan-ingurune egokia eta komunikazio efizientea bermatzeko.

Zure langileak

Enpresako pertsonen artean beharrizan berezi eta desgaitasunei buruzko kontzientziak sortu eta horiek behar bezala kudeatu, adibidez, erantzukizun eta aginpide egokiak emanez.

Xehetasun gehiago hemen:
<https://learntowork.eu/special-needs>.



EGILEAK

Alicia Miklavcic, Anthony Camilleri,
Dejan Blagojevic, Gilberto Santos,
Henrika Varniene, Janez Damjan,
Marko Grdosic, Martin Edmondson,
Michael Bobik, Romana Nováčková,
Sandra Feliciano

EDITOREAK

Sandra Feliciano, Sanja Brus

DISEINUA

Tara Drev

COPYRIGHT

(C) 2018, Saps

SAPS PARTZUERGOA

European Association of Institutions in Higher Education
Knowledge Innovation Centre
Association of Slovene Higher Vocational Colleges
Czech Association of Schools of Professional Higher Education
Association des Directeurs d'IUT
Portuguese Council of Polytechnics
West of Scotland Colleges' Partnership
Conference of Academies for Applied Studies
Rector's Conference of Lithuanian University Colleges
Association of Austrian Universities of Applied Sciences

EURASHE	BE
KIC	MT
SKUPNOST VSS	SI
CASPHE	CZ
ADIUT	FR
CCISP	PT
WoSCoP	UK
KASSS	RS
LKDK	LT
FHK	AS


SAIL HONETAKO BESTE KOADERNO BATZUK

- 1. **Koaderno:** Ekin Lanari: Praktiketako Plan bat Antolatu eta Ezarri
- 3. **Koaderno:** Zure Enpresako Aurkezpen Eraginkorrak: Praktiketako Ikasleak Enpresan Hasi
- 4. **Koaderno:** Praktiketako Ikasleentzako Laguntza Laneko Praktiketarako: Tutoretza Eraginkorra



GEHIAGO IRAKURRI NAHI?
www.learnwork.eu

 learn to work



“Praktiketako ikasleak trebakuntza bukatu duenean, haren onurak epe luzekoak dira, hala ikaslearentzat nola enpresarentzat”.

Proiektu honek Europako Batzordearen babesa du. Argitalpen honek haren egileen ikuspegia bakarrik islatzen du, eta Batzordea ezin da hartu hemen bildutako informazioaz egiten den edozein erabileraren erantzulezat. Idazlan honek Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin lizentzia du.



Co-funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union

